**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Euskara, Kultura eta Kirola**<br>***04. Euskera, Cultura y Deporte*** | **04.** Ondare Historikoa<br>**04.** *Patrimonio Histórico* | **333.103** Zabalkundea eta Museoak<br>**333.103** *Divulgación y Museos* |

## Museoak

Foru Aldundiak beste erakunde publiko batzuekin batera aurrekontuari dagokionez honako museoetan parte hartzen du: Arte Ederren Museoa, Euskal Museoa, Berregin Artistikoen Museoa, Guggenheim Museoa, Bakearen Museoa, Medikuntzaren eta Zientzien Historiaren Museoa, Durangoko Arte eta Historia Museoa eta Itsas Museoa. Hala, urteko ekarpenak jada ordainduta daude.

Era berean, lurralde historikoko beste museo batzuen finantzazioan ere parte hartzen du, baina ez dago bere gobernu-organoen barruan, besteak beste Simon Bolibar Museoa, Euskal Abertzaletasunaren Museoa, Aste Santuko Pasio Irudien Museoa, Berriotxoakoa, Arte Sakroarena, Euskal Herriko Meatzaritzarena, Hontza Museoa eta Antzasti Museoa-Euskaldunon Etxea.

Horrez gain, interes kultural bereziko proiektuak egiten dituzten erakundeen dirulaguntzak izapidetu eta eman dira. Horixe da Bizkaiko Zubiaren kasua, Najerako Santa María La Real patronatuarena, Arratzuko Udalarena (“Arrolako Oppidum-eko interpretazio-zentroa: Arrolagune" izeneko kudeaketa-proiektua helburu duena) eta Santurtziko Itsasoko Ama auzo-elkartearena (Mazoko/Serantes Txikiko gudua birsortzeko).

“Bizkaikoa" Foru Enpresa Erakunde Publikoari dagozkion ekarpenak eman zaizkio. Erakunde horrek foru titulartasuneko museoak kudeatzen ditu eta kultura ondarea hedatzen du.

## Museos

La Diputación Foral participa presupuestariamente en el Museo de Bellas Artes, Museo Vasco, Museo de Reproducciones Artísticas, Museo Guggenheim, Museo de la Paz, Museo de Historia de la Medicina y de las Ciencias, Museo de Arte e Historia de Durango y Museo Marítimo, junto con otras instituciones públicas, habiéndose procedido al pago de las aportaciones anuales.

Asimismo, también participa en la financiación de otros museos que operan en el Territorio Histórico, pero no forma partes de sus órganos de gobierno, como el Museo Simón Bolivar, El Museo del Nacionalismo, el de Pasos de Semana Santa, el de Berriotxoa, el de Arte Sacro, el de la Minería del País Vasco, el Hontza Museoa y el museo Antzasti-Euskaldunon Etxea.

También se ha procedido a la tramitación y concesión de subvenciones a entidades que realicen proyectos de interés cultural especial. Tal es el caso de El Transbordador de Vizcaya, el del Patronato de Santa María La Real de Nájera, el Ayuntamiento de Arratzu con destino al proyecto de gestión del "Centro de interpretación del Oppidum de Arrola: Arrolagune, y la asociación de vecinos Itsasoko Ama de Santurtzi para la recreación de la batalla del Mazo (Pequeño Serantes).

Se han realizado las correspondientes aportaciones a la Entidad Pública Empresarial Foral “Bizkaikoa” cuyo objetivo es la gestión de los museos de titularidad foral y la difusión del Patrimonio cultural.

## Zaharberrikuntza tailerra

Ondare Kulturaleko Kontserbazio eta Zaharberritze Atalak honakoak gauzatu ditu urte honetan:

## Taller de Restauración

La actividad desarrollada por el Área de conservación y restauración del Patrimonio Cultural durante el año es la siguiente:

- Pintura: Foru Aldundiaren jabetzako koadro hauetan esku hartzen ari dira: “José Ibarra Gutiérrez de Caviedes jauna”, “Lekeitioko portuko eszena bat” eta ”Alegoria horiz”. “Joaquín Barroeta Aldamar jaunaren erretratoa” obraren lanak (pintura eta markoa) amaitu dira.

- Eskultura: Euskal Museoaren jabetza:"Santiago", Beaugranten taila polikromatua. Aste Santuko Pasoen Museoaren jabetza: eskultura polikromatua, “Pietatea”. BFAren jabetzakoak: “Izenbururik gabea”, Dora Salazarrena, eta “Bilboren harrizko ezkutua”.

- Papera: Aldundiaren Agiritegi Historikoko dokumentazioari buruzko jarduketak.

  Udal Agiritegiko espediente bat, Agiritegi Judizialeko bost espediente, Administrazio Agiritegiko espediente bat, Askotariko Agiritegiko hamazortzi espediente eta Notariotza Agiritegiko dokumentu bat.

  Foru Liburutegiko hamar liburutan eta hamar aldizkaritan jarduketak egin dira.

- Erretaulak: Ahaldun Nagusiaren Foru Dekretu baten bidez, Eliza Katolikoaren Bilboko Gotzaindegiari dirulaguntza eman zitzaion, Turtziozko San Pedro elizako Maitasun Ederraren Andre Mariaren erretaula zaharberritzeko eta hobetzeko. Gotzaindegiak proposatutako jarduketak eta oinarri teknikoak aztertu dira, bai eta lizitatzaileek aurkezturiko proiektuak, horien jarraipena egin da eta jarduketak gainbegiratu dira.

- Pintura: Se está actuado sobre los siguientes cuadros y marcos propiedad de Diputación: “D. José Ibarra y Gutiérrez Caviedes”, “Escena en el puerto de Lekeitio” y “Alegoría en amarillo”. Se ha concluido el trabajo en pintura y marco de “Retrato de D. Joaquín Barroeta Aldamar”

- Escultura: Propiedad del Museo Vasco: talla policromada de Beaugrant “Santiago”. Propiedad del Museo Pasos de Semana Santa: la escultura policromada. “La Piedad”. Propiedad BFA: “Sin Título” de Dora Salazar y “Escudo pétreo de Bilbao”.

- Papel: actuaciones sobre documentación del Archivo Histórico de la Diputación.

  **Un** expediente del Archivo Municipal, **cinco** expedientes del Archivo Judicial, **un** expedientes del Archivo Administrativo, **dieciocho** del Archivo Varios **y un** documento del Archivo Notarial.

  Actuaciones sobre diez libros y diez revistas de la Biblioteca Foral.

- Retablos: mediante Decreto Foral del Diputado General se concedió una subvención al Obispado de Bilbao de la Iglesia Católica para la restauración y mejora del retablo de la Virgen del Amor Hermoso de la Parroquia de San Pedro de Romaña en Trucíos. Estudio de las propuestas de intervención y las bases técnicas propuestas por el Obispado, así como los proyectos presentados por empresas licitantes, seguimiento y supervisión de las intervenciones.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Euskara, Kultura eta Kirola**<br>***04. Euskera, Cultura y Deporte*** | **04.** Ondare Historikoa<br>**04.** *Patrimonio Histórico* | **333.103** Zabalkundea eta Museoak<br>**333.103** *Divulgación y Museos* |

Askotarikoak:

- Kultura Zuzendaritza Nagusiak eta BizkaiKOA enpresa-erakunde publikoak jarduketa-protokolo bat sinatu dute ekarpen teknikoak trukatzeko kultura interesa duten ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko eta arte garaikidearekin eta arkeologiarekin lotutako jarduketen aholkularitzarako. Gainera, BizkaiKOArekin batera lan egiten da Rekalde Aretoan, Ondare Aretoan, Omako basoan eta abarrean.
- Rekalde aretoan eta Ondare aretoan egiten diren erakusketak ikuskatu eta jarraipena egin da.
- Ramíres Tolosaren bildumako argazki-funtsak prebentzioz kontserbatzea.
- Cecilio funtsa prebentzioz aztertu eta baloratzea.
- Korrejimenduaren funtsa hautatu eta kontrolatzea, lehia publikoan esleitzeko gero.

Varios:

- Se ha firmado un protocolo de actuación entre la Dirección General de Cultura y la entidad pública empresarial BizkaiKOA para el intercambio de aportaciones técnicas, tanto a nivel de conservación-restauración de bienes de interés cultural como de asesoramiento en actuaciones relacionadas con el arte contemporáneo y la arqueología. Se colabora además con BizkaiKOA en la Sala Rekalde, Sala Ondare, Bosque de Oma, etc.
- Supervisión y seguimiento de las exposiciones que se realizan en la Sala Rekalde y la Sala Ondare.
- Conservación preventiva de los fondos fotográficos de la colección de Ramírez Tolosa.
- Estudio y valoración preventiva del fondo Foto Cecilio.
- Selección y control del fondo del Corregimiento para su posterior adjudicación en concurso público.